

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektuak funtziona dezan behar ditugun funtsezko baliabideak hiru multzotan banatzen dira: baliabide fisikoetan, baliabide intelektual eta giza baliabideetan eta finantza-baliabideetan.

Baliabide fisikoen barruan denda irekiko gureekin lokala egongo litzateke, barruan jarriko genituzkeen objektu eta tresneria guztiarekin batera. Horren barruan daude sukaldeko tresnak (harraska, hozkailua, ontzi-garbigailua...), komuna, jantokia (mahaiak, aulkiak, zakarrontziak...) eta mahai-tresneria (edalontziak, goilarak, zerealentzako katiluak...).

Baliabide intelektual eta giza baliabideei dagokienez, enpresaren 4 arduradunok edukiko genituzkeen abilezi ezberdinak daude. Lehenengoa, sukaldari aparta dena, zerealak sukaldatzeaz arduratuko litzateke sukaldean. Bigarrena, salmentarako abilezia duena, propaganda eraginkor batez arduratuko litzateke, horrela gure produktua jende gehiagoren artean zabaldin eta bezero gehiago lor ditzagun. Hirugarrenak teknologia berrien arloari buruz ezagutzak edukiko lituzke, dendaren web orria diseinatzeko gai izan dadin. Azkenik, laugarren parte-hartzailea diru-kontuetan aditua izango litzateke, enpresaren finantzazioa bide onean eraman dezan.

Bukatzeko, finantza-baliabideei dagokienez, egitasmoa martxan jartzeko beharrezko dirua bankuari eskatuko genioke (mailegua). Horrela, pixkanaka-pixkanaka diru hori itzultzen joango ginateke bezeroei esker lortutako irabazien bidez. Gainera, salduko diren produktuak ez zaizkie enpresa lokalei erosiko: hornitzailea Estatu Batuetako enpresa bat izango da, han dauden zerealak hemen oraindik ez direlako eskuragarriak. Beraz, enpresa hauei beraien produktuak hemen saltzea interesatuko zaienez (toki gehiagotan ezagunak izan daitezen), beste finantzazio iturri bat beraiekin akordio batera iristea eta beraien laguntza ekonomikoa eta guk erraztuko geniekeen produktuen espantsioa trukatzeko izango litzateke.